

EGILEA

Josu Díaz García

IRUDIGILEA

Puño

GAIAK

Familia. Fantasia. Umorea. Bakea eta gerra. Kulturartekotasuna. Antolamendu sozial eta politikoa. Adiskidetasuna

GAITASUNAK

Herritartasunerako gaitasuna. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Ekintzailtza-gaitasuna

ORRIALDE-KOP.: 104



Gaizkiaren jauna

Istorioaren nire bertsioa

ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Errealitatea interpreta-tzeko modu desberdinak daudela erakusten digu-lako eta aurreiritziek sortzen duten kaltearen gainean pentsarazten digu-lako, baita inor itxuragatik ez epaitzeak duen garrantziaren gainean ere. Lehen pertsonan idatzitako kontakizun bat da, umorea eta fantasia nahasten dituen, eta ez badi-rudi ere guztiok antzekotasunak dauzkagula erakusten digu.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Gaizkiaren jaunak, erdi orkoa eta erdi gizakia izanik, gainetik kendu nahi du gizakiek jarri dioten gaizto-fama. Horretarako, bi herrien artean bakea ezartzen saiatzen da, eta lortzen du. Laguntzaile ditu bere dragoia eta gurasoak, ezagutu berri dituenak. Iraganean, gurasoek beren harremana sakrifikatu zuten, ez giza-kiek ez orkoek onartuko ez zuten beldur zirelako, bi herriak liskarrean baitzebiltzan beti.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Haur, guraso eta hezitzaileentzat, istorioak hainbat sakontasun- eta hausnarketa-mailatarako aukera ematen baitu. Gauzen zergatia jakin nahi izaten duten irakurleentzat, eta bereziki, umorezko eta fantasiazko kontakizunak maite dituztenentzat eta ironia identifikatzeko gai direnentzat.

JARDUERA-PROPOSAMENA

BAKARKA

Eskatu ikasleei taula batean **alderatzeko istorioaren bi bertsioak**: idatz dezatela zutabe batean gizakiek Gaizkiaren jaunaz esaten duten guztia, eta beste batean, aldiz, protagonistaren bertsioa.

Gertaeren bertsioa, gizakien arabera	Gertaeren bertsioa, protagonistaren arabera

BAKARKA

Protagonistarentzat, erdi orkoa eta erdi gizakia izanik, garrantzitsua da bere **jatorriaz** jakitea, bere burua hobeto ezagutzeko. Premisa horri jarraituz, animatu ikasleak beren jatorriari buruz ikertzera eta **beren familia osoaren zuhaitz genealogikoa** egitera. Sar ditzatela bertan ezinbestekoak, bitxiak edo garrantzitsuak iruditzen zaizkien datu guztiak.

BIKOTEAK

Jarri ikasleak binaka. **Hitz egin dezatela talde batean onartuak sentitzeko** egiteko gai garen guztiaz (*modu jakin batean jantzi, taldean modan dagoen musika-mota entzun, ezarritako edertasun-kanonei jarraitu, etab.*). Ondoren, iradoki ikasleei pentsatzeko aipatu dituzten gauzetatik zeinek baldintza dezaketen beren nortasuna.

TALDEA

Irakurri ozen 11. orrialdea, eta antolatu **eztabaida bat**, talde handian, aurreiritziei buruz: *kontzeptu horren esanahia, egunerokoan ikusten ditugun adibideak, besteak ezagutu gabe epaitzeko arrazoiak, aurreiritzien ondorioak, aurreiritziak saihesteko moduak, etab.*

Gaizkiaren jauna

Josu Díaz García

Irudiak: Puño



Finalista BAPOREA SARTAN

IDAZKETA-TAILERRA

Proposatuz ikasleei egoera hau deskribatzeko edo asmatzeko: norbaitek epaitu egin ditu gertaeren beren bertsioa kontuan hartu gabe. Jarraian, eskatu **kontakizun** labur bat idazteko lehen pertsonan, istorioa **beren ikuspegitik** kontatzeko.